

Erref/Ref:	2026/2E/SESPLE
Proz/Proc:	Expediente de sesiones de Ayuntamiento Pleno
Secretaría	

UDAL OSOKO BILKURA
2026KO MARTXOAREN 26KO OHIKO
BILKURA

Kultur Leioako behin-behineko bilkuren aretoan -2021/1831 zbkiko Alkatetzaren Dekretua- bi mila eta hogeitaseiko martxoaren hogeita seiko bederatzia eta minutu bat direnean bildu da elizate honetako Udaleko Osoko Bilkura, **alkate udalburua IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA** jauna delarik, eta ertzean aipatu diren zinegotziak bertan direla, Udalbatza zuzenbidez eta berez osatzen duten kideen gehiengo legala osatuz; bertan izan da CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusi andrea, ohiko saioa egite aldera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikuluan ezarritako ondorioetarako, alde aurretik alkate udalburu andrearen ekimenez horretarako deitu dena, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Leioako Udaleko Herritarrek Parte Hartzeko eta Udal Araudi Organikoko 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz (182. BAO argitaratu zena 2013ko irailaren 23an), urte horretako ekainaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz onartutakoa.

Ordu horretan, lehenengo deialdian, udalburuak ekitaldia irekitzat jo du eta, jarraian, ohiko bilkura honen aztergai zerrindari heldu zaio:

SESIÓN ORDINARIA DEL
AYUNTAMIENTO PLENO DEL DÍA 26
DE MARZO DE 20206

En el Salón de sesiones provisional en Kultur Leioa –Decreto de Alcaldía 1831/2021, siendo las nueve horas y un minuto del día veintiséis de marzo de dos mil veintiséis se reúne el Ayuntamiento Pleno de esta Anteiglesia, presidido por el **Sr. Alcalde Presidente, D. IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA**, con la asistencia de los Sres. Concejales cuyos nombres al margen constan, y que constituyen la mayoría legal de los miembros que integran de hecho y de derecho la Corporación Municipal, asistidos por la **Secretaria DOÑA CHIARA CAMARON PACHECO**, al objeto de celebrar sesión a los efectos previstos en el artículo 46.1 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, previamente convocados al efecto por iniciativa de la Sr. Alcalde Presidente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 21.1.c) de la citada Ley, y los artículos 22 y siguientes del Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Leioa publicado en el BOB nº 182, correspondiente al día 23 de septiembre de 2.013 y aprobado tras acuerdo plenario del día 27 de junio de dicho año.

A la mencionada hora, en primera convocatoria, por la Presidencia, se declaró abierto el acto, y, seguidamente se entró en el orden del día de esta sesión ordinaria:

BERTARATUAK / ASISTENTES

ALKATE PRESIDENTEA / ALCALDE PRESIDENTE
IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES
Euzko Abertzaleak
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
MIKEL ABASCAL SOMOCUETO

MARTA ALVAREZ OIARBIDE
UGAITZ ZABALA GOMEZ
JULEN CAPETILLO ARAMBURU
MAIALEN GONZALEZ PUERTAS
AITOR MERINO REKALDE

EH-Bildu Leioa:

MARIA JOSE PELETEIRO RAMOS
EGUZKIÑE AGIRRE VELASCO
ASIER IZQUIERDO AGUILERA
ANTXON ILLARO ETXEBARRIA
EKAITZ UGARTE LOPEZ DE MANZANARA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

PILAR GRADOS GARCÍA
ENARA DIEZ OYARZUN
CONSUELO CASTELLANOS JIMENEZ

Partido Popular de Leioa

JON ALBISU SEOANE
BORJA ITURREGUI ZUBIAGA
IGNACIO BAQUERO LOZANO

Elkarrekin Leioa Podemos, Ezker Anitza-IU, Equo-Berdeak, Alianza Verde

LUIS MIGUEL LAPEÑA MORENO
ADOLFO GÓMEZ CAMACHO

EZ DIRA BERTARATU / NO ASISTE:

MARTA AGUILAR GOROSTIZA INTERVENTORA

EUSKARA ITZULTZAILEA / TRADUCTOR DE EUSKERA

KOLDO BIGURI

IDAZKARIA / SECRETARIA

CHIARA CAMARON PACHECO

I.- ERABAKITZEKOAK

I.-PARTE RESOLUTORIA

1.

2026ko otsailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkuraren akta onartzea

Aprobación del acta de la Sesión Plenaria Ordinaria del día 26 de febrero de 2026

Secretaría.

Número: 2026/1K/SESPLE.

2026ko otsailaren 26ko ohiko saioko akta onartzeke zegoela aipatu zen, eta Osoko Bilkurari aurkeztu zion onar zezan

Se hizo referencia a que estaba pendiente de aprobación el acta de la sesión ordinaria celebrada el día 26 de febrero de 2026, sometiendo al Pleno Corporativo la aprobación de la misma

Aktari buruzko oharririk ez dagoenez, onartutzat joda.

No existiendo observaciones al acta se da por aprobada

2.

Leioako Udalaren organigrama berria, Leioako Udalaren Funtzioen Eskuliburu berria eta Leioako Udaleko Lanpostuak Baloratzeko Metodoaren Eskuliburu Teoriko Berria onartu

Recursos Humanos y Contratación.

Número: 2024/4766M.

Aprobar el nuevo Organigrama del Ayuntamiento de Leioa, el Nuevo Manual de Funciones del Ayuntamiento de Leioa y el Nuevo Manual teórico del Método de Valoración de los Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Leioa

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Udalbatzak, aldeko hamaika botorekin, Euzko Abertzaleen zortzi zinegotziek eta Sozialistas Vascos-Euskal Sozialisten hiru zinegotziek emandakoak, eta hamar abstenzio, EH-Bildu Leioa taldeko bost zinegotzienak, Partido Popular de Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Elkarrekin Leioa Podemos, Ezker Anitza-IU, Equo-Berdeak, Alianza Verde taldeko bi zinegotzienak **ERABAKI DU**:

2023ko abenduaren 30ean sinatu zen zerbitzu-kontratua Leioako Udaleko lanpostuen balorazioa egiteko aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratuaren enpresa esleipendunarekin. 2024ko otsailaren 16an, balioespen-batzordearen lehen bilera egin zen, sindikatuen ordezkariak eta Udaleko ordezkariak modu parekidean osatutakoa.

Bilera horretan bi fasetan osatzen zen balorazio-prozesua azaldu zen, Udaleko Giza Baliabideen egoera aztertzeke lehen fasea. Fase horretan, enpresak diagnostiko bat eta hobekuntza-proposamen bat egiten zituen organigrama berri batekin, eta, aldi berean, lanpostu bakoitzaren funtzioak aztertzen zituen eta funtzioen fitxen eskuliburu berri bat proposatzen zuen, egindako berrantolaketa-proposamenaren arabera.

Balorazioaren bigarren fasea ezarritako funtzioetatik abiatzen zen, eta enpresak proposatutako balorazio-metodoaren eskuliburu teorikoa aplikatzen zion lanpostu bakoitzari. Eskuliburua toki-erakundearen ordainsarien aplikazio arautzailetik abiatzen da, dagozkien faktoreei graduak finkatuta.

Horrela, Udaleko lanpostu bakoitza banaka aztertzen da, eta horren emaitza faktore bakoitzari ezarritako mailen arabera puntuazioa ematea da. Puntuazio hori balio ekonomiko bihurtzen da, eta, ondorioz, ordainsari, Udalaren urteko aurrekontuaren arabera soldata-masa

Leída la propuesta y sometida a votación, el Ayuntamiento Pleno con once votos a favor emitidos por las/os ocho Concejales de Euzko Abertzaleak y por las tres Concejales de Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, habiéndose registrado diez abstenciones de las/os cinco Concejales de EH-Bildu Leioa, de los tres Concejales del Partido Popular de Leioa y de los dos Concejales de Elkarrekin Leioa Podemos, Ezker Anitza-IU, Equo-Berdeak, Alianza Verde, **ACUERDA**

En fecha 30 de diciembre de 2023 se firmó el contrato de servicios con la empresa adjudicataria del Contrato del Servicio de consultoría y asistencia técnica para la realización de la valoración de puestos de trabajo del ayuntamiento de Leioa. En fecha 16 de febrero de 2024 se celebró la primera reunión de la comisión de valoración formada de forma paritaria por las personas elegidas por la representación sindical y los/las representantes del Ayuntamiento.

En dicha reunión se explicó el proceso de valoración que se conformaba en dos fases, una primera fase de análisis de la situación de los Recursos Humanos en el Ayuntamiento, donde la empresa realizaba un diagnóstico y una propuesta de mejora con un nuevo organigrama y a su vez analizaba las funciones de cada puesto y proponía un nuevo manual de fichas de funciones de acuerdo con la propuesta de reorganización realizada.

La segunda fase de la valoración partía de las funciones establecidas y aplicaba a cada puesto el Manual Teórico del Método de valoración propuesto por la empresa. El Manual parte de la aplicación normativa de las retribuciones de las entidades locales mediante la fijación de grados a los factores correspondientes

Así, cada uno de los puestos del Ayuntamiento se analizan individualmente y el resultado es el otorgamiento de una puntuación por los grados establecidos de cada factor. Dicha puntuación se traduce en un valor económico y en consecuencia en retribución cuando se pone en relación con la

erabilgarriarekin erlazionatzen denean eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako mugak aplikatu ondoren, zehazki, abenduaren 23ko 31/2022 Legea, 2026ko ekitaldi honetara automatikoki luzatzeagatik aplikatzekoa	masa salarial disponible según presupuesto anual del Ayuntamiento y tras la aplicación de los límites establecidos en la Ley de Presupuestos Generales del Estado, concretamente, la Ley 31/2022, de 23 de diciembre aplicable por su prórroga automática a este ejercicio 2026.
Espedientearen txosten juridiko-ekonomikoan deskribatu den Udaleko balorazio-prozesuak plantillaren parte-hartzeari irekitako aldiak izan ditu, eta prozeduraren mugarrietako bakoitza ordezkaritza sindikalarrekin negoziatu da. Balorazio-prozesua Udalak egindako azterketa orokor eta zehatzaren ondoren gauzatu da. Bertan, lanpostu bakoitza aztertu da, gaur egun esleitura dituen funtzioak, benetan egiten direnak eta etorkizunean Udalari herritarrei zerbitzurik onena eta eraginkorrena emango dion egitura bat emateko beharrezkoak izango direnak kontuan hartuta.	El proceso de valoración en el Ayuntamiento que se ha descrito en el Informe jurídico-económico del expediente ha contado con periodos abiertos a la de participación tanto de de la plantilla y cada uno de los hitos del procedimiento ha sido negociado con la representación sindical. El proceso de valoración se ha llevado a cabo tras un análisis global y exhaustivo del Ayuntamiento en el que cada uno de los puestos de trabajo ha sido analizado teniendo en cuenta las funciones que actualmente tiene encomendadas, las que efectivamente se realizan y las que en el futuro serán necesarias para dotar al Ayuntamiento de una estructura que dé el mejor y más eficiente servicio a la ciudadanía.
Balorazio-prozesua organigrama berria eta funtzioen eskuliburu behin betiko finkatzeari ekin zitzaion, eta horren behin betiko bertsioa honako hau da: CSV 16342270430242030426 CSV 16342270632443171301	El proceso valoración se inició fijación definitiva del nuevo organigrama y el manual de funciones cuya versión definitiva es la que sigue: CSV 16342270430242030426 CSV 16342270632443171301
Balorazioa bera egiteko, Lanpostuak Baloratzeko Metodoaren Eskuliburu Teorikoa erabili zen. Aholkularitza-enpresak hasieran aurkeztutako eskuliburuari balorazio-mahaian adostutako aldaketak gehitu zitzaizkion, eta, horien ondorioz, Udalaren errealitatera egokitu ahal izan da.	Para la realización de la valoración propiamente dicha se utilizó el Manual Teórico del Método de Valoración de los Puestos de Trabajo. Al manual inicialmente presentado por la empresa consultora se introdujeron las modificaciones acordadas en la mesa de valoración que han permitido la adaptación del mismo a la realidad del Ayuntamiento.
Eskuliburu horretan, erakundeko lanpostuei graduak esleitzeko orduan orientabide eta erreferentzia-esparru izan behar duten balorazio-irizpideak edo -faktoreak jasotzen dira.	Dicho Manual, contiene los criterios o factores de valoración que deben servir de orientación y marco de referencia a la hora de la asignación de grados a los puestos de trabajo de la Institución.
Faktore bakoitzaren definizioa agertzen da, hau da, lanpostu bakoitzari buruz balioetsi eta balioetsi nahi diren ezaugarriak, bai eta eskala ere, lanpostu bakoitzaren garrantzi erlatiboa besteekiko bereizteko aukera ematen duten mailekin.	Por cada factor aparece su definición, es decir, las características que se pretende apreciar y valorar de cada puesto, así como la escala con una serie de grados que permiten diferenciar la importancia relativa de cada puesto en relación a los demás.
Graduak esleitzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan: - Lanpostuaren monografia - Faktorea, definizioa eta dagozkion graduak	Para la asignación de los grados es necesario tener en cuenta: -La Monografía del Puesto de Trabajo -El factor, su definición y grados correspondientes.

- Lanpostu bakoitzaren kokapen erlatiboa gainerakoekiko, lanpostuen banaketa eskalako graduatan multzo homogeneoa izan dadin erlatibitateari dagokionez eta zuzena tratamenduari dagokionez.

- Era berean, kontuan hartu beharko da emaitza osoa, ez bakarrik lanpostu bakoitzak faktore bakoitzean duen posizio erlatiboa, baita azken emaitzan ere, erakundearen testuinguruan.

Eskuliburuan balioesten diren faktoreak lanpostua osatzen duten funtzioak arrakastaz betetzeko behar diren gaitasunetatik eta ezaugarrietatik eratortzen dira

Eskuliburua dokumentu honetan kontsulta daiteke:

CSV 16342271250023573542

Lanpostuaren Puntuen Balorazioa zenbakizko adierazlea da, eta balio du lanpostuen eta balorazio bateratuaren arteko alde erlatiboak ezartzeko, eta, aldi berean, balorazio-faktore desberdinen bereizgarria. Lanpostu bakoitzaren puntuen balioak finko jarraituko du, lanpostuaren edukia eta zirkunstantzia espezifikokoak aldatzen ez diren bitartean, eta, beraz, haren balioa ere aldatzen ez den bitartean.

Lanpostuaren Puntuen Balioaren itzulpena lanpostu guztietara bihurtzeko sistema bera aplikatuz egiten da, eta horrek Lanpostuaren Ordainsaria eragiten du.

Lanpostuen Balorazioa aplikatzeak berekin dakar ordura arte lanpostuek esleitura zeuzkaten osagarri edo plus erregular, finko, egonkor eta iraunkor guztiak desagertzea, balorazioa egiterakoan kontuan hartu zirelako eta ondoriozko ordainsari-kontzeptuen barruan sartu zirelako. Horrela, edozein arrazoiengatik lehendik jasotzen zen edozein osagarri pertsonal irentsiko da Balorazioaren aplikazioan.

Negoiazio Mahaian adostutako ekonomia bihurtzeko azken proposamenak 201,2 euroko balio/puntu baten esleipena jasotzen du. Proposamenean, lanpostu bakoitzaren balorazioa jasotzen da, bai faktore bakoitzari esleitutako puntuena, bai haren itzulpen ekonomikoarena, eta 2025eko ekitaldian jasotako ordainsariei dagokien iguera edo beherapena ezartzen da.

-La ubicación relativa de cada puesto en relación al resto, de forma que la distribución de los puestos en los grados de la escala sea un conjunto homogéneo en su relatividad y equitativo en su tratamiento.

-Asimismo, se deberá tener en cuenta la globalidad del resultado, no sólo la posición relativa de cada puesto en cada factor, sino también en el resultado final, en el contexto de la Institución.

Los factores que se valoran en el Manual se derivan de las aptitudes y rasgos necesarios que se requieren para realizar con éxito las funciones que configuran el puesto de trabajo.

El Manual puede consultarse en el siguiente documento:

CSV 16342271250023573542

La Valoración en Puntos del Puesto de Trabajo es un indicador numérico que sirve para establecer las diferencias relativas entre los diferentes puestos de trabajo respecto a una valoración conjunta y a la vez, distintiva de los diferentes factores de valoración. El valor en puntos de cada puesto de trabajo continuará fijo, mientras que el contenido y las circunstancias específicas del puesto no cambien y, por tanto, tampoco cambie su valor.

La traducción del Valor en Puntos del Puesto de Trabajo se realiza mediante la aplicación del mismo sistema de conversión a todos los puestos de trabajo, hecho que da lugar a la Retribución del Puesto de Trabajo.

La aplicación de la Valoración de Puestos de Trabajo supone la desaparición de todo complemento o plus de carácter regular, fijo, estable y permanente que tuviesen asignados los puestos de trabajo hasta este momento, por haberse tenido en consideración en el momento de efectuar la valoración y haber sido integrados dentro de los conceptos retributivos resultantes. Así, cualquier complemento personal anterior que se viniera percibiendo por cualquier causa se ve absorbido en la aplicación de la Valoración.

La propuesta final de conversión económica acordada en la Mesa de negociación, recoge la asignación de un valor/punto de 201,2 €. En la propuesta se recoge la valoración de cada puesto de trabajo tanto de los puntos asignados a cada factor como su traducción económica y se establece el incremento o decremento correspondiente respecto de las retribuciones percibidas en el ejercicio 2025.

Nolanahi ere, emaitza ekonomikoa aplikagarri den aurrekontu-araudian ezarritako mugak zorrotz betetz aplikatzen da, eta horren emaitza balorazio-taula hau da:

CSV: [16342271215407250245](#)

Oinarri juridikoak

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 74. artikuluan ezarritakoaren arabera:

"Administrazio publikoek lanpostu-zerrenden edo antzeko beste antolaketa-tresna batzuen bidez egituratuko dute beren antolamendua, eta, gutxienez, lanpostuen izenak, lanbide-sailkapeneko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak jasoko dituzte. Tresna horiek publikoak izango dira."

Lanpostuen zerrenda (aurrerantzean, "LPZ") langileak antolatzeko tresna tekniko gisa definitzen da, eta zerbitzuen beharrak islatu behar ditu, lanpostu bakoitzaren baldintza espezifikoak zehaztuta

Era berean, apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuak Toki Administrazioen funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen du, ordainsari-kontzeptuak zehaztuz, eta horien barruan berariazko osagarria, 4. artikuluan honako hau jasoz: "lanpostu batzuen baldintza partikularrak ordaintzeko da, zailtasun tekniko, dedikazio, bateraezintasun, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasun berezia kontuan hartuta". Era berean, "lanpostu horiek ezarri edo aldatu aurretik, Korporazioak lanpostuaren balorazioa egin beharko du".

Indarrean dagoen araudiak ez du prozedura espezifiko edo zehatzik arautzen hura onartzeko edo aldatzeko, baina behin eta berriz adierazi da negoziatzeko beharra, nahiz eta gehiengoaren doktrinaren arabera ez den beharrezkoa informazio publikoaren izapidea, tresna arauemaileei dagokiena, eta ez zaien iruditzen interesdunei entzunaldiaren izapidea eskatzea; irizpide hori Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak partekatzen du 2000ko maiatzaren 24ko epaian.

La aplicación del resultado económico se realiza en todo caso con estricto cumplimiento de los límites establecidos por la normativa presupuestaria de aplicación y tiene como resultado la siguiente tabla de valoración:

CSV: [16342271215407250245](#)

Fundamentos jurídicos

De acuerdo con lo establecido en el artículo 74 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre:

"las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares que comprenderán, al menos, la denominación de los puestos, los grupos de clasificación profesional, los cuerpos o escalas, en su caso, a que estén adscritos, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias. Dichos instrumentos serán públicos."

La Relación de Puestos de Trabajo (en adelante, "RPT") se define como el instrumento técnico a través del cual se realiza la ordenación de personal, debiendo reflejar las necesidades de los servicios, detallando los requisitos específicos de cada puesto de trabajo.

A su vez, el Real Decreto 861/1986, de 25 de abril, establece el régimen de las retribuciones de los funcionarios de Administración Local determinando los conceptos retributivos y dentro de ellos el complemento específico, recogiendo en su artículo 4 que "está destinado a retribuir las condiciones particulares de algunos puestos de trabajo en atención a su especial dificultad técnica, dedicación, incompatibilidad, responsabilidad, peligrosidad o penosidad" así como que "su establecimiento o modificación exigirá, con carácter previo, que por la Corporación se efectúe una valoración del puesto de trabajo."

La normativa vigente no regula un procedimiento específico o concreto para su aprobación o modificación, pero se ha reiterado la necesidad de negociación, si bien la doctrina mayoritaria considera que no es necesario el trámite de información pública, propio de los instrumentos de carácter normativo, y tampoco les parece exigible el trámite de audiencia a los interesados; criterio compartido por el TSJ Andalucía en sentencia de 24 de mayo de 2000.

Lanpostuen zerrendak, eskumena duen organoak onartu aurretik, langileen ordezkariekin negoziazio-prozesu bat izan behar du nahitaez. Hala ondorioztatzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.m) artikuluan xedatutakotik. Artikulu horrek, besteak beste, honako gai hauek jasotzen ditu: "... giza baliabideen plangintza estrategikoari buruzko irizpide orokorrak, enplegatu publikoen lan-baldintzei eragiten dieten alderdietan". 37.2 artikuluan, Administrazio Publikoen antolamendua ahalmenari eragiten dieten erabakiak negoziatzeko betebeharretik kanpo uzten ditu, aurreko paragrafoan aurreikusitako funtzionario publikoen lan-baldintzetan eraginik ez badute behintzat, eta, kasu horretan, baldintza horiek negoziatzeko dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aipatzen dituen erakunde sindikalekin (Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 19ko eta 2006ko maiatzaren 22ko epaiak, besteak beste)

Udaleko negoziazio-prozesua tresna bakoitza lantzeko etapa guztietan egin da. Plantillako pertsonen informazioa biltzeko hainbat motatako mekanismoak ezarri ditu etengabe, elkarrizketa pertsonalak eta eskala guztietarako elkarrizketak barne. Halaber, egindako ekarpenak jaso dira eta negoziatio-mahaian aztertu dira. Bestalde, espedientean jasota daude Udaleko sailtako buruzagitzen txostenak, egindako ekarpenak osatzeko eta/edo balorazio-prozesuaren azken emaitzan azkenean jaso diren aldaketa batzuk justifikatzeko.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzeko eskumena Udalbatzak izango du.

BAOn argitaratu beharko da, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3. artikulua. "Lanpostuen zerrendak eta horien aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo dagokion lurralde historikokoan, foru-aldundiei edo toki-erakundeei dagozkienean. Lanpostu-zerrenden ondorioak argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira, berariaz beste egun bat aurreikusten denean

La relación de puestos de trabajo debe ser objeto necesariamente, antes de su aprobación por el órgano competente, de un proceso de negociación con los representantes de los trabajadores. Así se desprende de lo dispuesto en el artículo 37.m) del RD Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público - TREBEP- que incluye entre otras materias "...los criterios generales sobre la planificación estratégica de los recursos humanos, en aquellos aspectos que afecten a condiciones de trabajo de los empleados públicos". En el artículo 37.2 excluye de obligatoriedad de negociación a las decisiones de las Administraciones Públicas que afecten a sus potestades de organización, salvo que tengan repercusión sobre condiciones de trabajo de los funcionarios públicos contempladas en el apartado anterior, y, en ese caso, procederá la negociación de dichas condiciones con las organizaciones sindicales a que se refiere el TREBEP (Sentencias del TS de 19 de junio de 2006 y de 22 de mayo de 2006, entre otras).

El proceso de negociación en el Ayuntamiento se ha llevado a cabo en todas y cada una de las etapas de elaboración de cada instrumento. Se han establecido constantemente mecanismos de distinto tipo para la recogida de información de las personas de la plantilla, incluyéndose entrevistas personales y para todas las escalas. Asimismo, se han recogido las aportaciones realizadas y han sido tratadas en la mesa de negociación. Por otro lado, constan en el expediente informes de las jefaturas de los distintos departamentos del Ayuntamiento donde se complementan las aportaciones realizadas y/o se justifican algunas de las modificaciones que finalmente se han recogido en el resultado final del proceso de valoración

El órgano competente para la aprobación de la modificación de la RPT, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 22.2.i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, será el Pleno de la Corporación.

Habrà de procederse a su publicación en el BOB y de conformidad con el art. 45.3. de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco "Las relaciones de puestos de trabajo, así como sus modificaciones, se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, o en el del territorio histórico respectivo cuando correspondan a diputaciones forales o entidades locales. Los efectos derivados de las relaciones de

izan ezik. "

Ondorioz, prozedura honetan bete egiten da araudiak prozedura-ikuspegitik ezarritakoa.

Ordainsarien mugei dagokienez, kontuan hartu beharko dira Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarritako mugak; izan ere, lege horretan zehazten da sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak izan dezaketen gehieneko igoera globala, eta, bestalde, kontuan hartu da 2026ko aurrekontuak ezarritako aurrekontu-muga.

2025. urterako, sektore publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuak % 2,5eko igoera ezarri zuen, Leioako Udalean jada aplikatuta, 2025eko abenduaren 18ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez.

2026. urterako, 14/2025 Legegintzako Errege Dekretuak berak % 2rainoko igoera ezarri zuen (% 1,5 + % 0,5 baldintzapean):

1. 2026an, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko gehieneko gehikuntza izan ahal izango dute, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, errege lege-dekretu honetan onartutako ordainsari-igoera barne. Ordainsari-igoera hori homogeneotasunez hartuko da kontuan konparazioaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez, eta ondorio ekonomikoak izango ditu 2026ko urtarilaren 1etik aurrera.

2. Era berean, 2026ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko zaie 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, errege lege-dekretu honetan onartutako ordainsari-igoera barne, 2026an KPIaren aldaketa ehuneko 1,5ekoa edo handiago bada, eta igoera hori 2027ko lehen hiruhilekoan ordainduko da.

Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2026ko KPIaren datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da. "

Aurreko mugek eragin zuzena eta berehalakoa dute Udalean ordainsari-igoeraren bat onartzean, toki-administrazioetako langileen arloko ordainsari-politika baldintzatzen baitu.

puestos de trabajo comenzarán a partir del día siguiente a su publicación, salvo que expresamente se prevea otra fecha."

En consecuencia, se cumple en este procedimiento lo establecido por la normativa desde el punto de vista procedimental.

Respecto a los límites retributivos, deberán tenerse en cuenta las limitaciones impuestas por la Ley de Presupuestos Generales del Estado, dado que en ella se determina el incremento global máximo que pueden experimentar las retribuciones del personal al servicio del sector público y por otro lado se ha tenido en cuenta el límite presupuestario marcado por el presupuesto del año 2026.

Para el año 2025, el Real Decreto-ley 14/2025, de 2 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público estableció un incremento del 2,5%, ya aplicado en el Ayuntamiento de Leioa mediante Acuerdo de Pleno de 18 de diciembre de 2025.

Para el año 2026, el mismo RDL 14/2025, estableció un incremento de hasta el 2% (1,5% + 0,5% condicionado):

"1. En el año 2026, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2026.

2. Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2026, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley, si la variación del IPC en el año 2026 es igual o superior al 1,5 por ciento, que se abonará en el primer trimestre de 2027.

A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPC del año 2026, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE."

Las limitaciones anteriores tienen una incidencia directa e inmediata sobre la aprobación de cualquier incremento retributivo en el Ayuntamiento, puesto que viene a condicionar la

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. zazpi artikulua edukiak (ekonomiaren, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloko premiazko neurriak onartzen dituen urtarilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera aplikatzekoa den araudia, eta kalteberatasun-egoerei aurre egitekoa), aurreko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak bezala, muga horietatik kanpo uzten ditu lanpostuen edukiagatik bereziki eta salbuespenez ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak.

Ondorioz, ordainsari-egokitzapenak, bereziki eta salbuespenez, lanpostuen edukiagatik ezinbestekoak badira, ez dira muga horren mende egongo, baldin eta lanpostuen balorazio egokiaren ondorio badira, dela aurretik halakorik egin ez delako, dela lanpostu berriak sortu direlako edo lehendik zeudenak funtsean aldatu direlako, ezagutza zientifiko edo praktikoak aplikatuz, lanpostuaren edukiaren eta konpentsazio ekonomikoaren arteko egokitasun objektiboa lortzeko.

Udalan lanpostu bakoitzaren balorazio individualizatua egin da, eta balorazioa aplikatzeak esan nahi du 2025eko soldata-masa % 1,24 handitu dela homogeneotasunari dagokionez.

Kalkulu hori egiteko, 2025eko LPZn hornitutako lanpostu kopuru bera hartu zen kontuan, eta balorazioa onartzeko akordioa hartu ondoren behin betiko amortizatuko diren lanpostuak konparaziotik kendu ziren. Lanpostu hauek dira: 5007/40 delineatzailea, 5414/0 instalazioen mantentze-lanetako ofiziala, 5026/47 lanpostua mantentze-lanetako langile espezialista, 5040/71 gainbegirale pertsonala eta lorezaintzako Zerbitzuak.

Horrek esan nahi du 2025. urteko soldata-masaren emaitza 8.942.551,36 eurokoa izan dela homogeneotasunari dagokionez.

Ondoren, lanpostu bakoitzean aldatu diren baldintzak kontuan hartuta, aparteko aldaketagatik ordainsari-egokitzapen berezia dakarten lanpostuak identifikatu dira, eta soldata-masa homogeneoaren kalkulutik kendu dira. Zehazki, balorazioan baloratutako 57 postuetako 17 postuei baldintza berrien ondoriozko ordainsari-igoerak kendu zaizkie: Zerbitzu Orokorretako Departamentuko

política retributiva en materia de personal de las distintas administraciones locales.

El contenido del artículo 19. siete de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023 (normativa aplicable en virtud de la disposición adicional primera del Real Decreto-ley 1/2025, de 28 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia económica, de transporte, de Seguridad Social, y para hacer frente a situaciones de vulnerabilidad), al igual que las LPGE anteriores, excluye de dichos límites las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo.

En consecuencia, las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, no están sujetas a dicha limitación siempre que traigan causa de una correcta valoración de los puestos de trabajo bien porque nunca se había realizado con anterioridad, o por razones de creación de nuevos puestos o modificación sustancial de los preexistentes realizada mediante la aplicación de conocimientos científicos o prácticos que busquen la objetiva adecuación entre el contenido del puesto y su compensación económica.

En el Ayuntamiento se ha realizado una valoración individualizada de cada puesto de trabajo y la aplicación de la valoración supone un incremento de la masa salarial del 2025 del 1,24% en términos de homogeneidad.

Para dicho cálculo se tuvieron en cuenta el mismo número de puestos de trabajo dotados en la RPT del año 2025 eliminando de la comparativa los puestos que van a ser definitivamente amortizados tras la adopción del acuerdo por el que se apruebe la valoración y que son los siguientes puestos: 5007/40 Delineante, 5414/0 Oficial mantenimiento de instalaciones, Puesto 5026/47 Operario especialista de mantenimiento, 5040/71 Supervisor personal y servicios de jardinería.

Lo que arroja un resultado de masa salarial del año 2025 en términos de homogeneidad de 8.942.551,36 de Euros.

Posteriormente, teniendo en cuenta las condiciones que han sido modificadas en cada uno de los puestos de trabajo se ha identificado aquellos puestos que por su modificación excepcional suponen una adecuación retributiva de carácter singular y se han restado del cálculo de la masa salarial homogénea. Concretamente se han restado los incrementos retributivos derivados de

Burutza, Modernizazioko, Kalitateko eta Partaidetzako Burutza, Esku Hartzeko Departamentuko Burutza, Giza Baliabideetako eta Kontratazioko Departamentuko Burutza, Lurraldeko koordinatzailea/Hirigintzako Burutza, mantentze-lanetako langilea, hainbat ofiziotako ofiziala, peoi espezialista, lorezaintzako arduraduna, lorezaintzako ofiziala, lorezaintzako peoi espezialista, hezkuntzako eta euskara teknikaria, poliziako ofizialordea, agentea, Behargintzako burua, Behargintzako teknikaria.

Azkenik, kalkuluari kendu egin zaio ordainsaria murriztu zaien lanpostuetako batzuen gradu pertsonala (lanpostu-mailako osagarria) finkatzeari dagokion zenbatekoa, Udalak, legeak aginduta, ordaindu behar duen Lanpostuen Baloraziotik kanpoko baldintza pertsonala delako, beste baldintza pertsonal batzuekiko analogiatik, hala nola hirurtekoak aintzatesteagatik. Finkatutako destino-osagarriari dagokion zenbatekoa 21.153,66 eurokoa da.

Lanpostuen ordainsari-kontzeptuei buruzko balorazioa egin ondoren, kostua aurrekontu-plantilla eguneratura eraman da, plantillako pertsona bakoitzaren kontzeptu pertsonalak kontuan hartuta, espedientean dagoen bezala.

Egungo plantillari balorazioa aplikatzearen ondorioz, Udalean 2026rako hornitutako lanpostuen soldata-kostua 13.045.682,51 eurokoa da, eta ordainsari-kontzeptu guztiak, gizarte-segurantzaren kostuak, Elkarkidetza eta antzintasunak barne hartzen ditu. Zenbateko horri 28.950,65 euro gehitu beharko zaizkio, osagarri pertsonal iragankor gisa. Zenbateko hori ordainsaria murrizten zaien pertsonen ordainduko zaie, aurrerago azalduko den moduan, eta 21.153,66 euro gradu finkatuaren kontzeptupean, maila hori hobetu duten pertsonen kasuan. Guztira, Udalean balorazioarekin hornitutako lanpostuen soldata-gastua 13.095.786,79 eurokoa izango da.

Lanpostu-mailako osagarria finkatzea

Proposatutako balorazioaren inpaktuak % 1,24ko igoera dakar homogeneotasunari dagokionez, eta esan behar da erakundearen LPZ osatzen duten lanpostu guztietatik 9tan, balorazioaren ondorioz, lanpostu-mailako osagarria jaitsi egiten dela.

las nuevas condiciones a los siguientes 17 puestos de los 57 puestos totales valorados en la valoración: Jefatura Departamento de Servicios Generales, Jefatura de modernización, calidad y participación, Jefatura Departamento de Intervención, Jefatura Departamento RRHH y contratación, Coordinador/a área de Territorio/Jefatura de urbanismo, Operario/a de mantenimiento, Oficial/a de oficios varios, Peón/a especialista, Encargado/a de jardinería, Oficial/a de jardinería, Peón especialista de jardinería, Técnico/a de educación y euskera, Suboficial de policía, Agente 1º, Agente, Jefatura de Behargintza, Técnico/a de Behargintza.

Finalmente se ha restado del cálculo la cuantía relativa a la consolidación del grado personal (complemento de destino) de algunas de las personas a cuyo puesto de trabajo se reduce la retribución por tratarse de una condición personal ajena a la Valoración de Puestos de Trabajo que el Ayuntamiento debe abonar por mandato legal por analogía con otras condiciones personales como el reconocimiento de trienios. La cuantía correspondiente al complemento de destino consolidado asciende a 21.153,66 € Euros.

Una vez realizada la Valoración sobre los conceptos retributivos de los puestos se ha trasladado el coste a la plantilla presupuestaria actualizada, teniendo en cuenta los conceptos personales de cada persona de la plantilla tal y como consta en el expediente.

La aplicación de la valoración a la plantilla actual arroja que el coste salarial de los puestos dotados en el Ayuntamiento para 2026 es de 13.045.682,51 Euros e incluye todos los conceptos retributivos, costes de seguridad social, Elkarkidetza y antigüedades. A dicha cuantía será necesario añadir 28.950,65 Euros en concepto de Complemento Personal Transitorio que se abonará a aquellas personas que vean reducida su retribución tal y como se expondrá más adelante, y 21.153,66 Euros en concepto de grado consolidado en el caso de aquellas personas que ya lo hayan perfeccionado. En total el gasto salarial de los puestos dotados en el Ayuntamiento con la valoración ascenderá a 13.095.786,79 Euros.

La consolidación del complemento de destino

El impacto de la Valoración propuesta supone un incremento del 1,24% en términos de homogeneidad y cabe decir que, de todos los puestos de trabajo que integran la RPT de la entidad, hay 9 en los que, como resultado de la Valoración, el Complemento de Destino baja.

Beraz, Balorazioaren emaitza gisa, 9 lanpostu LPZn agertzen zena baino lanpostu-mailako osagarri txikiagoarekin geratzen dira.

Gradu pertsonala finkatzea Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusita dago. Era berean, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 70. artikuluan jasota dago (364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko langileak sartzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duena).

Gradu pertsonala honela defini daiteke: funtzionarioak esleitura duen osagarria ondaretzen duen lanpostu bat aldi jakin batean betetzeagatik lortzen duen nolakotasuna. Gradu pertsonala ez da automatikoki finkatzen; aitzitik, osagarria finkatuta duen lanpostua betetzen duen administrazioak aintzatetsi dezala eskatu behar da.

Graduaren aitortpenak ondorioak dituen datari dagokionez, haren ondorioak gertatu diren unetik aurrera izango dira, eta aitortpen formala izango dute, jada gertatu den inguruabar baten egiaztapen-izaera; beraz, arauaren aginduz kontsolidazioa gertatu zen unetik aurrera izango ditu ondorioak.

Aldi baterako osagarri pertsonalak (CPT) konpentsazio ekonomikoa dira, langile publiko batek jasotzen dituen ordainsarietan murrizketa gerta daitekeen kasuetarako, langile publikoak kanpoko arau-neurri bat aplikatzearen ondorioz (kasu honetan, VPT da). Beraz, osagarri pertsonala da, ez lanpostuarena.

Lehen aipatu bezala, proposatutako LPBk lanpostu jakin batzuen ordainsariak handitzea eta beste batzuen ordainsariak murriztea dakar.

Gaur egun plaza horiek betetzen dituzten pertsonen artean, 11ren ordainsariak murriztu egiten dira LPEn ondoren. Ordainsari txikia duten lanpostuak betetzen dituzten pertsonak xurgatzeko moduko LPZ jasoko dute.

Aldi baterako osagarri pertsonalaren xedeari

Por tanto 9 puestos, como resultado de la Valoración quedan con un complemento de destino menor al que figuraba en la RPT.

La consolidación del grado personal viene prevista en la Disposición transitoria quinta de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco. También está recogido en el artículo 70 del Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de ingreso del personal al servicio de la Administración General del Estado y de provisión de puestos de trabajo y promoción profesional de los funcionarios civiles de la Administración General del Estado

El grado personal se puede definir como la cualidad que el funcionario adquiere por el desempeño durante un periodo de tiempo determinado de un puesto a través de la que patrimonializa el complemento que tiene asignado aquél. La consolidación del grado personal no se produce de manera automática, sino que ha de ser rogada y precisa del reconocimiento por parte de la Administración en la que se desempeña el puesto cuyo complemento es consolidado.

En cuanto a la fecha desde la que tiene efectos el reconocimiento del grado, sus efectos lo serán desde el momento en que se haya producido, teniendo el reconocimiento formal, el carácter de constatación de una circunstancia que ya se ha producido, por lo que los efectos de la misma lo serán desde el momento en que por ministerio de la norma se produjo la consolidación

Los complementos personales transitorios (CPT) constituyen una compensación económica para los casos en que se pueda producir una disminución de las retribuciones percibidas por un/a empleado/a público como consecuencia de la aplicación de una medida normativa ajena al mismo, como, en este caso, es la VPT. Se trata por tanto de un complemento de carácter personal, no del puesto de trabajo.

Como ya se ha mencionado con anterioridad, la VPT propuesta reporta el aumento de retribuciones de determinados puestos de trabajo y la disminución de retribuciones en otros.

A nivel de las personas que ocupan las plazas actualmente, hay 11 cuyas retribuciones se ven reducidas tras la VPT. Las personas que actualmente ocupen los puestos cuya retribución baja percibirán un CPT absorbible.

En relación con la finalidad del complemento

dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 27ko epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, 7. atala) honako hau adierazten du 3. oinarri juridikoan:

«Salaren ustez, Estatuaren abokatuak azaldutako argudioak ez dira nahikoa instantzia-epaia baliogabetzeko. Izan ere, bertan aitortzen da eztabaidatu den ordainsari-osagarria ez dagoela 30/1984 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoen artean.

Hala ere, esan du etorkizunean igoerek xurgatu dezaketen osagarri pertsonal eta iragankorren teknika, araubide berriak ordainsarien zenbatekoa murrizten badu, jurisprudentziak onartu duela.

1991ko uztailaren 12ko eta 1999ko maiatzaren 29ko epaiak ekarri ditu gogora, eta honako hau adierazi du: "ez da legez kanpoko, ez baitu ordainsarien hobekuntza ekartzen, baizik eta konpentsazio hutsa funtzionarioen ordainsarietan". Halaber, "ez du 7/1985 Legearen 93. artikulua urratzen, ordainsari osagarriak gainerako funtzionario publikoen balorazio objektiborako egiturari eta irizpideei lotzea eskatzen baitu; beraz, ordainsari-berdintasuna ezartzen du, eta debekatu egiten du toki-korporazioetako funtzionarioen aldeko ordainsari-privilegio oro, osagarri pertsonal iragankorraren helburua baita ordainsari-maila errespetatzea, funtzionarioak eskuratutako eskubide gisa, eta helburua da funtzionario horien erosteko ahalmenaren balio-galera konpentsatzea"

Arrazoi horiek azaldu ondoren baino ez du aipatzen epaiak 861/1986 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren 4. paragrafoa.

Egin dugun laburpenean ikus daitekeenez, kasazio-arrazoiak epaiak jarraitutako arrazoibidearen alboalderdiak baino ez ditu zalantzan jartzen, eta ez du ezer esaten Sevillako Salak aipatzen duen jurisprudentziari buruz, ez eta eztabaidatutako osagarriaren xedari eta ezaugarriei buruz ere, nahiz eta alderdi horietan oinarritzen den haren legezkotasunari buruzko erabakia.

Eta, hain zuzen ere, jurisprudentziak onartzen du osagarri pertsonal iragankorrak eta xurgagarriak erabiltzea, hala nola Coria del Rioko Udalaren akordioan aurreikusitakoak, eragindako

personal transitorio la Sentencia del Tribunal Supremo (Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección 7ª) de 27 de abril de 2009 declara en su Fundamento Jurídico 3º:

«Considera la Sala que los argumentos expuestos por el Abogado del Estado no son suficientes para anular la sentencia de instancia. En efecto, en ella misma se reconoce que el complemento retributivo discutido no se encuentra entre los previstos por el artículo 23 de la Ley 30/1984.

No obstante, dice que la técnica de los complementos personales y transitorios absorbibles por futuros aumentos en el caso de que el nuevo régimen disminuya el montante de las retribuciones ha sido admitida por la jurisprudencia.

Recuerda las sentencias de 12 de julio de 1991 y de 29 de mayo de 199 y afirma que "su establecimiento no es ilegal por cuanto no supone una mejora retributiva sino una mera compensación en las retribuciones de los funcionarios" y que "tampoco vulnera el artículo 93 de la Ley 7/1985 , que exige que las retribuciones complementarias se atengan a la estructura y criterios de valoración objetiva del resto de los funcionarios públicos; lo que impone, en consecuencia, es la igualdad retributiva, y lo que proscribe es cualquier privilegio retributivo a favor de los funcionarios de las Corporaciones Locales, puesto que la finalidad del complemento personal transitorio es respetar el nivel retributivo como derecho adquirido del funcionario y tiene por objeto compensar la depreciación del poder adquisitivo de dichos funcionarios".

Solamente después de expuestas estas razones, la sentencia alude, a título de añadido, a la disposición transitoria primera, apartado 4, del Real Decreto 861/1986.

Tal como se puede apreciar por el resumen que hemos hecho del mismo, el motivo de casación solamente cuestiona aspectos laterales del razonamiento seguido por la sentencia y nada dice de la jurisprudencia a la que se refiere la Sala de Sevilla ni de la finalidad y características del complemento discutido, a pesar de que en esos extremos descansa el pronunciamiento sobre su legalidad.

Y resulta que, efectivamente, la jurisprudencia viene admitiendo la utilización de complementos personales transitorios y absorbibles, como los previstos en el acuerdo del Ayuntamiento de

funtzionarioek lanpostu-zerrenden aldaketaren ondorioz izan dezaketen murrizketari aurre egiteko.

Horrela, instantzia-epaiak aipatzen dituen epaiez gain, Sala eta Atal honek irizpide hori aplikatu du 2007ko martxoaren 19ko epaian (1696/2002 kasazioa), 2004ko ekainaren 14ko epaian eta otsailaren 16ko epaian (2385 eta 2400/2001 kasazioa, hurrenez hurren) .»

Lanpostuen balorazioaren emaitza aplikatzearen atzeraeragina

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (APAPEL), 39.3 honela dio:

"Salbuespen gisa, atzeraeragina eman ahal izango zaie egintzei, deuseztatutako egintzen ordezen ematen direnean, eta, era berean, interesdunari ondorio mesedegarriak dakartzkiotenean, baldin eta beharrezko egitatezko kasuak jada existitzen badira egintzaren eraginkortasuna atzeratzen den datan, eta efikazia horrek beste pertsona batzuen eskubide edo interes legitimoei kalterik egiten ez badie."

Aurrekotik ondoriozta daitekeenez, egitatezko bi kasu daude administrazio-egintza bati atzeraeraginezko ondorioak emateko gaitzen dutenak. Honako hauek dira:

1. Deuseztatutako egintzen ordezen ematen diren egintzak izatea
2. Edo, bestela, interesdunari ondorio mesedegarriak dakartzkion egintzak izatea.

Horrek esan nahi du LPZren eguneratzeak atzeraeragina izan dezakeela, albuespenez eta azterketa zorrotzetan oinarrituta, interesdunari ondorio mesedegarriak eragiten badizkie, baldin eta egintzaren eraginkortasuna atzeratzen den datan egitatezko kasuak bazeuden, eta efikazia horrek beste pertsona batzuen eskubide edo interes legitimoei kalterik egiten ez badie, are gehiago aldaketa hori organo eskudunak onartzen duenean.

Ondorioz, erabakitakoarekin bat etorritik, balorazio honen atzeraeraginezko ondorioak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak izateko baldintzak betetzen dira, eta, gainera, ekitaldi honetan bertan aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago.

Coria del Río para hacer frente a la minoración que, como consecuencia de la modificación de las relaciones de puestos de trabajo, puedan experimentar los funcionarios afectados.

Así, además de las sentencias a las que se refiere la de instancia, esta Sala y Sección ha aplicado ese criterio en las de 19 de marzo de 2007 (casación 1696/2002), 14 de junio y 16 de febrero ambas de 2004 (casación 2385 y 2400/2001, respectivamente)»

Retroactividad de la aplicación del resultado de la valoración de puestos de trabajo

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas -LPACAP-, en su art. 39.3 dice lo siguiente:

